

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 220/2019 Erabakia, apirilaren 2koa. Onespena ematea JEZari dagozkion probintziako eta estatuko 2018ko kuotak banatzeari Arabako Lurralde Historikoko udalen artean

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 13ko 165/1993 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 122. zk., 1993ko urriaren 25ekoa), jarduera ekonomikoen gaineko zergaren zenbait kuota banatzeko ezinbesteko arauak onetsi ziren.

Bestalde, maiatzaren 14ko 13/2014 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiak zenbait tokiko zerga kudeatzeagatik kobratzen duen errekaragua, edo kobrantza gastua, aldatzekoak hau xedatzen du: "Arabako Foru Aldundiak, lurraldeko beste herri administrazio batzuetarako zerga kontzeptu batzuen bilketaren kudeaketa esleituta badu, edo lan hori gain hartu, eta benetan gauzatzen badu, ehuneko 5 kenduko du bilketa-gastuak direla-eta". Manu horrek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Horiek horrela, banatu egin dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota probintzial eta estatalak, 2017an bildutakoak, Arabako Lurralde Historikoko udalerrien artean.

Aztertu da Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak 2019ko martxoaren 20ean egindako txostena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota probintzial eta estatalak, 2018an bildutakoak, banatzea. Kuota horiek erabaki honen eranskinean zehazten dira eta guztira bi milioi berrogeita sei mila zazpiehun eta hirurogeita bederatzi euro eta hirurogeita hamalau zentimo (2.046.769,74 euro) egiten dute.

Bigarrena. Zergabilketak eragindako gastuak konpentsatzeko, zenbateko horri ehun eta bi mila hirurehun eta hogeita hemezortzi euro eta berrogeita bederatzi zentimo (102.338,49 euro) kenduko zaizkio, maiatzaren 5eko 12/1993 Foru Arauaren, hainbat kontzepturen ordainarazpenerako kupo erregimena arautzen duenaren, xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik. Xedapen gehigarri horretan xedatutakoa aplikatzeko kontuan izango dugu maiatzaren 14ko 13/2014 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiak zenbait tokiko zerga kudeatzeagatik kobratzen duen errekaragua edo kobrantza gastua aldatzekoak, horri buruz emandako idazketa.

Hirugarrena. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuota probintzial eta estatalak, 2018an bildutakoak, direla eta, ordain diezaiela Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak zenbateko hori lurralde historiko honetako udalei, 99/15 - 19.1.77 lerroaren kontura, honekin batera doan eranskinean jasotako banaketaren arabera.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, zenbait toki administrazioan eragina duelako, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 103. artikuluekin bat etorritz.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

PROBINTZIAKO ETA ESTATUKO 2018KO KUOTEN BANAKETA (EUROTAN)			
UDALERRIA	BANAKETA GORDINA	KOBRANTZA SARIA	BANAKETA GARBIA
DULANTZI	13.216,610	660,830	12.555,780
AMURRIO	59.891,260	2.994,560	56.896,700
AÑANA	1.259,110	62,960	1.196,150
ARAMAIO	6.499,040	324,950	6.174,090
ARMIÑON	1.529,990	76,500	1.453,490
ARRAIA - MAEZTU	4.032,680	201,630	3.831,050
ARRATZUA - UBARRUNDIA	4.692,710	234,640	4.458,070
ARTZINIEGA	9.816,640	490,830	9.325,810
ASPARRENA	18.052,610	902,630	17.149,980
AYALA	14.484,330	724,220	13.760,110
MAÑUETA	2.432,300	121,620	2.310,680
BARRUNDIA	5.813,630	290,680	5.522,950
BERANTEVILLA	7.931,210	396,560	7.534,650
BERNEDO	3.207,230	160,360	3.046,870
KANPEZU	5.721,930	286,100	5.435,830
BURGELU	3.339,600	166,980	3.172,620
ELCIEGO	8.810,390	440,520	8.369,870
BILAR	2.747,590	137,380	2.610,210
IRUÑA OKA	23.876,720	1.193,840	22.682,880
IRURAZ - GAUNA	1.769,630	88,480	1.681,150
KRIPAN	734,070	36,700	697,370
KUARTANGO	4.720,270	236,010	4.484,260
BASTIDA	12.479,400	623,970	11.855,430
LAGRAN	771,540	38,580	732,960
GUARDIA	29.170,690	1.458,530	27.712,160
LANTZIEGO	6.335,380	316,770	6.018,610
LANTARON	21.205,420	1.060,270	20.145,150
LAPUEBLA DE LABARCA	6.760,400	338,020	6.422,380
LEGUTIO	38.749,510	1.937,480	36.812,030
LEZA	1.803,610	90,180	1.713,430
LAUDIO	97.787,410	4.889,370	92.898,040
MOREDA ARABA	1.337,070	66,850	1.270,220
NAVARIDAS	1.361,320	68,070	1.293,250
OKONDO	6.922,040	346,100	6.575,940
OION	34.575,100	1.728,730	32.846,370
URIZAHARRA	1.147,430	57,370	1.090,060

PROBINTZIAKO ETA ESTATUKO 2018KO KUOTEN BANAKETA (EUROTAN)			
UDALERRIA	BANAKETA GORDINA	KOBRANTZA SARIA	BANAKETA GARBIA
ERRIBERAGOITIA	4.933,450	246,670	4.686,780
ERRIBERABEITIA	10.104,920	505,250	9.599,670
AGURAIN	37.072,660	1.853,630	35.219,030
SAMANIEGO	2.918,520	145,930	2.772,590
DONEMILIAGA	13.110,700	655,540	12.455,160
URKABUSTAIZ	10.073,160	503,660	9.569,500
GAUBEA	10.521,170	526,060	9.995,110
HARANA	1.095,150	54,760	1.040,390
ESKUERNAGA	3.332,390	166,620	3.165,770
GASTEIZ	1.451.170,720	72.558,540	1.378.612,180
IEKORA	1.039,310	51,970	987,340
ZALDUONDO	885,350	44,270	841,080
ZAMBRANA	1.972,170	98,610	1.873,560
ZIGOITIA	21.983,550	1.099,180	20.884,370
ZUIA	11.570,650	578,530	10.992,120
GUZTIRA	2.046.769,740	102.338,490	1.944.431,250